

Badator antzerki eta dantza astea



185 kiloko zilindro zaharra altxatu du Urtzi Telleriak

Adunako sariketan 80 kilotik azpikoen artean onena izan zen Urtzi Telleria harri-jasotzailea, 150 kiloko zilindro zaharra 13 aldiz altxatuta eta ondoren 185 kiloko zilindroa altxatu zuen, sekula jaso duen harririk astunena. /4

500 pertsona, 45 antzerki eta dantza talde, 19 antzezlan... Horiek dira, 8. Antzerki eta Dantza Asteko datuak.

Joxe Mari Agirretxe, Pablo Barriok eta Kontxu Iartzak, besteak beste, azaldu zituzten Manuel Lekuona Kultur etxe-ko aretoa maiatzaren 15etik 28ra arte hartuko duen Antzerki eta Dantza Asteko nondik norakoak.

Hamabostaldia eta desfilea

Astea hamabostaldia bilakatu dela azpimarratu zuen Joxe Mari Agirretxek. Izan ere, gero eta talde gehiago daude, "talde berriak sortu dira antzerkian eta dantzan, Solaskide taldea, Sasota-Zumaburuko taldeak eta Añorgako Amasorain ikastolan ere talde bat egin da aurten."

Maiatzaren 15ean, desfilea eta *Dantzas Blai!* ikuskizunarekin emango zaio hasiera. "lazko arakasta ikusirik aurten ere desfilea egingo dugu, oraingoan talde guztiak batuta," azaldu



Antzerki eta dantza asteko aurkezpenean antolatzaileak, irakasleak eta ikasleak egon ziren.

zuten. Gainera, antzerki eta dantza asteko bestia estreinatuko da desfilean.

Astean zehar, astelehenetik ostegunera, haurren antzerki lan ezberdinak ikusteko aukera

egongo da bi saio ezberdinetan, bata ikasleentzako 11:00etan eta bestea, gurasoentzat, 19:00etan. "Hala ere, arratsaldean joan ezin duenak goizean aukera du," aipatu zuten.

Ostiraletan, berriz, maiatzak 21 eta 28an, helduen taldeen txanda izango da.

Antzerkia eta dantzas gozatzeko aukera paregabea, beraz, Antzerki eta Dantza Astean. •

Gidabaimena doan ateratzeko aukera dago Buruntzaldean

Urtarrilean Buruntzaldeko Udalek *Semaforo berdea: orain gidabaimena* euskaraz egitasmoa jarri zuten martxan eremuko autoeskoletan.

Idurre Lukas Hernaniko Euskara Saileko lehendakariak, Ricardo Ortega Lasarte-Oriako Euskara Saileko lehendakariak eta Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko teknikariak eman zuten aditzera kanpainaren nondik norakoa.

Herritar guzteei zuzendua badago ere, kanpaina 2010ean 18 urte beteko dituzten gazteei dago bereziki zuzendua. "Horregatik, gazteei eskutitza

eta kanpainaren eskuorria bidali zaie etxera" azaldu zuen Mariferrek.

Honetaz gain, dagoeneko azterketa egin duten Izarne Zapiain astigartarraren eta Jon Altuna lasarteoriatarren esperientzia entzun ahal izan zen.

Zozketa

Era berean, urte amaieran, egitasmoan parte hartzen duten autoeskola bakoitzean eta gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen artean zozketa egingo dela azaldu zuten. Saria azterketa teorikoa doan izatea, 400 eurotako mugarekin. •

MUSIKA /5

Unhe trioren Solasaldi diska berriari buruz hitz egin dugu Iñigo Peña taldeko kidearekin

KIROLA/6

Ostadarreko Gomazko Pala txapelketako finala eta 3. postuko lehia bihar jokatuko dira



Rikardo Ortega eta Idurre Lukas gidabaimeneko azterketa teorikoa euskaraz egin duten Izarne Zapiain eta Jon Altuna gazteekin.

Maiatzatik Irailera gauero* zabalik

Asteko menu berezia ikusteko:

www.goiegi.com

* igandea eta astelehena ezik

GOIEGI

Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 • 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

Maiatzatik Irailera gauero* zabalik

Asteko menu berezia ikusteko:

www.goiegi.com

* igandea eta astelehena ezik

BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pateak

Odolkia- Solomo ontzutua

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Joan-etorriak

Denbora pixka bat bada zutabe honetan idazten ez nuela, nire bizitzaren gora beherak eta joan-etorriak direla eta. Bitarte honetan herrian ere izan dira hainbat joan-etorri. Ziurrenik entzutsuena Lasarte-Oria sortu zenetik genuen alkate bakarraren joatea izan da. Ezbairik gabe, gauza asko egin ditu herrian, hainbeste urteren ondoren. Bestalde, gauzak egiteko moduan oso autokrata izan da, txarrerako. Bere ondorengoak onartu duen bezala, "izaera gogorreko" emakumea omen da, eufemismo egokia erabiliz (nik beste modu batera deskribatuko nukeen). Zer gertatuko da hemendik aurrera? Hasteko, alkate berriari eskatuko nioke, besteak beste, aurrekoak baino jarrera hobea erakustea alkatezaren erantzukizunen barnean (2011ko maiatzaren arte). Eta 2011ko maiatzetik aurrera, zer? Zaila da asmatzea, baina aukera polita daukagu aurrean gure herriko gauzak aldatzen hasteko. Ez al da horrela? "Yes, we can".

Benoa, besterik ez... Ah, bai!!! Beste joan-etorri entzutsua izan dugu azkenaldi honetan. Oso erreportaje polita argitaratu zuen astelehenean Txintxarri Mila gure amaginarrebaren jubilaria dela eta: bere denda "joan" da, baina bere "jubilaria" etorri da, lanera zuzendutako hainbat urteren ondoren. Zorionak!!!

Iñaki Erauskin

Zorion-agurrak



Alberto

Zorionak mutil! Dantzatu, abestu eta elkarrekin gozatu dugu behar den moduan ospatzeko.



Aiora

Zorionak printzesa! Txokomarrubizko hiru muxu goxo. Ondo pasa familiaren partetik.



Ciro

Zorionak eta ondo pasa. Bazkalduko dugu zure kontura! Zure lagunen partetik.



Julen

Zorionak bolitxe zure urtebetetzeari. 4 muxu handi ama, aita, Endika eta familiaren partetik,



Igor

Zorionak pottoko! Bi muxu handi gurasoen eta familiaren partetik! Ondo pasa!



Andrea

Zorionak zure 1. jaunartzea egin duzualako panpoxa. Haizea, Naroa eta familiaren partetik.



Igor

Zorionak txapelduntxiki! Familiaren partetik.



Irati

Zorionak printzesa! Aita, ama, Eneritz eta famili osoaren partetik.



Maitane

Zorionak sorgintxo! Muxu ugari lker, aita-ama eta famili osoak.



Ainara

Zorionak eta ondo pasa 22. urtebetetzeari eta gehiago bete. Muxu bat Arkaiz eta Unai.



Goretti

Zorionak etxeko mari-gorringoari. Ondo pasa zure 12. garren ospakizunean. Muxuak!!!



Nerea

Zorionak guapa! Hogei-taharren barrera pasa dun, baina gezurra dirudi! Muxuak!



Irati, Erika, Leire

Zorionak zuen lehen jaunartzean. Maiteren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Harremanetarako telefonoa 676 910 566.

• Lokala alokatzen da, 35 m2koa Zabaleta auzoan. Harremanetarako telefonoa: 686 234408

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, kumina, sukaldia eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Bero-gailua eta armairu enpotratuak ditu. Harremanetarako zenbakia: 695 785 153.

• Apartamentu bat alokatzen dut ekainetik aurrera Cala de Fines-ertrat herrian. 2 logela, egongela, bi komun eta sukaldia ditu. Urbani-zazioak igerilekua eta paddel pista ditu eta hondartza 150 metro-tara du. Harremanetarako telefonoa: 667 731 456.

Lan-eskaintzak

• Lasarte-Orian martxan dagoen okindegia alokatzen da. Tel.: 653 703 531 943 550 089.

• Gitarra elektrikoko irakaslea behar da etxean klaseak emateko. Telefonoa, 661 011 946.

• Neska edo emakume bat behar da arratsalde, bi urteko ume bat zaintzeko. Tel.: 687 230 051.

Lan-eskariak

• Euskara, lenguaie, ingelesa eta hainbat gaietako klase partikularrak emango nituzke. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.

• Pertsona adinduek zaintzeko edo orduka lan egiteko pertsona eskaintzen da. Tel.: 639 593 039.

• Lan bila nabil etxerik etxe ezin laguntzaile moduan, edo atezain gisa... Esperientzi luzearekin. Telefonoa: 680 983 527, Karlos.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com • Tel.: 943 366858

Guardiak

Astelehena, 10

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteartea, 11

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 12

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 13

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Ostirala, 7

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 8

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa	...943 007960
DYA	...943 464622
Gurutze Gorria	...943 363953
Udaltzainak	...943 362442
Ertzaintza	...943 288888
SOS Deiak	...112

Udala

Erregistroa	... 943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	... 943376182
Kulturetxea	... 943376181
Zerbitzu Sozialak	... 943376179
KIUB	... 943361605
Udal euskategia	... 943361621

Heriotzak

Cecilia Redondo Bernar, apirilaren 29an 92 urte zituela



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Atsobakarren jarri zen txakurrentzako komunak ez du arrakastarik izan. Txakurrak belarra nahiago dute.

Isuna jarriko zaie txakurren gorotza jasotzen ez dutenei

Astearteko prentsaurrekoan jakinera eman zuten Jesus Mari Zaballós alkateak astelohetik aurrera txakurren gorotzak herri-bidetik zein lorategi publikoetatik jasotzen ez dutenek isuna jasoko dutela. Zigorak 30 euro eta 300 euro bitartekoak izango dira. Lehendabizikoa aldi harrapatu dituztenek 30 euro ordaindu beharko dituzte, bigarrenez harrapatuek 60, horrela hurrenez hurren 300 euro iritsi arte.

Gorotz guneak ezabatzen

Alkatetzak gorotzak pilatzen diren lekuak aztertuko ditu, eta hori ekiditeko neurriak ere hartuko dituela azaldu zuten Zaballósek. Zapategi kalea honen adibidea dela aipatu

zuen "jendea eserlekuetan jartzen zen eta txakurrak libreki bere gorotzak non-nahi uzten zituzten, hori ekiditeko, eserlekuak kendu ditugu". Hartutako lehen neurri honekin batera, gorotz gune gehiago aurkituz gero, ekiditeko neurriak hartuko dituztela azaldu zuten.

Udaltzainen ardura

Lasarte-Oriako udaltzainak izango dira arau-urratze hau gerta ez dadin ardura hartuko dutenak "eurek izango dira arau-urratzearen txostena egiteaz arduratuko direnak" azaldu du Zaballósek "eta alkatetza arduratuko da herri-tarra zigortzeaz".

Eskubideen urraketa

Zibismoaren kontua ondo errotu egin nahi da herrian

guztion elkarbizitza ahalik eta erosoena izan dadin. Lasarte-Oriako udaltzainak izango dira arau-urratze hau gerta ez dadin ardura hartuko dutenak "eurek izango dira arau-urratzearen txostena egiteaz arduratuko direnak" azaldu du Zaballósek "eta alkatetza arduratuko da herri-tarra zigortzeaz".

Lasarte-Oria aurrekari

Zabor-ontzi arruntetan bota beharko dira txakurren gorotzak eta Lasarte-Oria ondo prestatua dago zabor-ontzien kopuruari dagokionez: 24 biztanleko, zabor-ontzi bat dago "gainera gorotzak eta zabor-ontziko zaborra leku berdinerako" azaldu du Zaballósek. Alkateak gainera argi azaldu du ez dela errukirik izango, "arau-urraketa egiten duenak isuna ordainduko du".

SINDIKATUA

CNTren mendeurrena eta utopian bizitzea

CNT sindikatuak bere 100. urteurrena ospatzen du aurten. Gipuzkoako delegaritzak urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu zuen asteazkenean Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Lehenik, Xabier Erauzkinek anarkosindikalismoaren eta CNT sindikatuaren historia laburtu zuen, lehenengo mugimenduak, sindikatuaren sorrera, ilegalizazioak eta egungo egoerari buruz ere hitz egin zuen.

Ostean, *Vivir la utopia* dokumentala ikusi zen. Honetan, Guda zibil garaian, anarkistek aurrera eraman zituzten esperientzia aztertzen dia, bizirik dirauten herritar ezberdinei, anarkistak gehienak, egindako elkarbizitza bidez. •



Xabier Erauzkin eta Rafa Lopez CNTko mendeurrenako hitzaldian.

MUSIKA

Pintzelkada koralak Biyak bat elkartearen

Sutargi abesbatzaren kontzertua entzuteko aukera izango dute, bihar larunbata arratsaldeko 19:00etan, Biyak Bat erretiratuen egoitzara hurbiltzen direnek.

Lezoko abesbatza 1995. urtean sortu zuten musika koral abestu nahi zuten herritar batzuek. Haien helburua kantatzeaz gozatzea eta udalerrian antolatutako jardueretan parte hartzea da.

Kutxak lagundutako ekimen honetan, Sutargi abesbatzak ordu beteko saioa eskainiko du. Euskal musikagileen abestiak eta doinu herrikoiak, besteak beste, beteko dute Biyak Bat erretiratuen egoitza. •

Aurrematrikula garaia da Musika Eskolan

Etxe txikitik hasi eta helduenera, Lasarte-Oriako Musika Eskola adin guztietarako eskaintza aurkezten du, txokoak, hastapena, musika hizkuntza, helduen taldea...

Honela, aurrematrikula egiteko epea maiatzaren 3tik 21era egongo da irekia. Interesatuak, Manuel Lekuona kultur etxean bigarren solairuan, 9:00etatik 13:00etara, eskatu dezakete informazioa eta aurrematrikula egiteko orria.

Honetaz gain, Lasarte-Oriako Udalak jakin-arazten du, derri-gorrezkoa dela aurrematrikula egitea plaza izateko.

HITZALDIA

Gaixotasunak eta bizitako esperientziak

Gaixotasuna sinbolo bezala. Gaixotasunen zergatia hitzaldia eskaini zuten asteazken arratsaldean Pilar Arrazola psikologoak Emakumeen Zentro Zibiko egoitzan.

Faktore genetikoez gain, gorputzaren energiek eta bizitako esperientzia guztiek ere gaixotasunetan zerkusia dutela azaldu zuten Pilar Arrazolak hitzaldira gerturatu ziren emakumeei. •



Gaixotasunak bizitakoaren arabera sortzen direla azaldu zuten Pilar Arrazolak.

Azkorteko erromeria igandean

Ohitura denez, Santa Krutz egunaren ondorengo igandean, hau da, igande honetan, antolatuko du Lasarte-Oriako Azkorteko erromeria.

Giro bikaina sortzen da erromeri honetan, eta primerako igande goiza pasatzeko aukera ona da, beti ere, eguraldiak laguntzen badu.

Egitaraua

Erromerian hasiera emateko, 11:00etan meza ospatuko da ermitan. Bertan izango dira Alboka abesbatzako kideak eta Amalur eskolako trikitilariak meza kantuz laguntzen.

12:30etik aurrera, herri kirolak ikusteko aukera izango da ermita kanpoaldean eta, ostean, bikotekako lehia bizia.

Mugertza semea eta beste aizkolari baten arteko norgehiagoka egongo da eta harri-jasotzen, Telleria anaien, Urtzi eta Iraitzin artekoa.

Bikotekako lehian egin beharreko lanak enborrak aizkoraz moztu, harria jaso eta enborrak trontzatu.

Lasarte-Oriako Bertso-eskolako Patxi Etxeberria eta Zigor Iriondo ere bertan izango dira bertso batzuek kantatu eta giroa alaitzeko.

Honetaz gain, goiz guztian zehar, Amalur eskolako gazte-txoe beren doinuekin erromeria girotuko dute.

Aterpean, gainera, taberna-txoa egongo da salda, pintxo eta edariekin erromeria nahi den adina luzatzeko.

Azkorteko erromeria Tta-

kun Kultur Elkarteak antolatzen du eta Udaleko Gazterako, Festetako eta Kiroletako Batzordearen laguntza jasotzen du.

Autobusa

Urtero moduan, ezin izango da kotxeetan ermitara hurbildu.

Horren ordez, autobusa jarriko da goizeko 9:00etatik aurrera Lasarte-Oriako erretiratuen elkartetik. Honek ordu-erdiro egingo ditu bidaia eta goiz osoan zehar ibiliko da. Ibilbidea doan izango da.

Autobusak plaza mugatuak dituzenez, mezetara joan nahi duenak autobusa nahiko goiz hartzea gomendatzen da. Beste la, sasoiako daudenentzat, oinez igotzea da onena. •

Urtzi Telleria Harri-jasotzailea

‘Indartsu itzuli naiz eta pozik nago’

■ 185 kiloko zilindroa altxatu zuen Adunako Gorostidi Harria sariketan ■ 80 kilotik azpikoan artean onena izan zen ■ 200eko harria altxatzen badu Harri Handien Txapelketan aterako da

Urtzi Telleria harri-jasotzaileak saio bikaina egin zuen apirilaren 25ean Gorostidi harriarekin Adunan. 150 kiloko zilindro zaharra 13 aldiz altxatu zuen eta 80 kilotik azpikoan artean txapelkun izan zen. Ondoren 185 kiloko zilindroa altxatu zuen Telleria II.k, sekula jaso duen harririk astunena. Kronikek hainbat lore eskaini dizkiote, ‘erakustaldia’ eman zuen, ‘bera izan zen onena’, ‘harri-jasotzaile handia da’, ‘bere maila erakutsi zuen’,... baina herriko kirolari gaztearen ustez etxean egindako lanaren ondorio da Adunan lortutakoa. Igandean 12:30ean Azkorten izango da.

JON ALTUNA

Harri-jasotzaile bikaina dela erakutsi zuen duela 15 egun Urtzi Telleriak, Adunako 150 kiloko zilindro zaharra 13 aldiz altxatuta, Joxetxo Urrutia bigarrenak baino lau gehiago eta Iraitz anaia baino sei gehiago eta gustura zen egindako lanarekin: "150 kiloko zilindroarekin etxean pentsatutako lana egin genuen, eta 185 kiloko harriari heldzea nire ilusioa zen."

Zalantzarik gabe, ondo prestatuta joan zinen probara?
Azkenengo lau hilabetetan ibili naiz proba prestatzen. 16 hilabete pasa ditut kirolrik egin gabe, hepatitis gaixotasunarekin. Medikuek esan zidan urtebetean ez aritzeko.

Beraz itzuli eta ondo gainera. Pozik egongo zara, beraz?
Bai indartsu itzuli naiz eta gustura nago.

185 kilo al da sekula altxatu duzun pisu gehiena?
Orain artean behintzat bai. 175 kiloko neukan jasoa, bai oraingo harri modalitate berrietan eta baita garai bateko harri zaharretan ere. Bietan kilo berdinak. Orain 185ekoa altxa dut.

Eta zer moduz altxa zenuen? Erraz? Juxtu? Gehiago altxatzeko moduan al zaude?
Oraindik handiagoari heltzeko asmoa badugu. Aurrerago izango da. 185ekoa belaunetara ateratzen asko kostatu zitzaidan, gero jada belaunetatik gora nahiko erraz, ondo, dominatu nuen.

Dena den, harri txikiekien hobeto ibiltzen zara?
Ehun kiloko zilindroan eta harrian moldatzen naiz ni ondoena.

Gehiena zenbat kilo altxatuko dituzula uste duzu?
Hori ez dakigu. Gero ikusiko da muga non dagoen. Oraingoz limitea 185ean daukagu, 200goa jasoko al nuke? Agian jasoko nuke orain, agian ez.

Eta zein harrirekin egingo duzu froga?
200 kiloko harri errektangular berria etxean probatzeko asmoa daukat. Ikusiko dut, ondo ateraz gero, Euskal Herriko Harri Handien Txapelketan atera edo ez. Hori jasotzen baldin badut.

Zure aitak garai batean bere pisua hiru aldiz jasotzen saiatu zen...
Ez, aitak ere 200 kiloko jaso zuen. Nahi izanez gero jasoko zuen bere pisuaren hirukoitza. 200ekoarekin ibili zenean bazuen jasotzeko aukera. Jasoko zuen baina ez zen horretara begira jarri, harri txikietako txapelketara begira jarri zen gehienbat.

Daukazu gorpuzkerarentzat indar handia daukazula diote...
Bai, hori esaten dute. Berez, gorpuz txikioa naiz, baina gimnasioan landu dut eta karga hartzen ari naiz.

Harri handi eta txikien txapelketak daude, baina hor berdin da pisu asko eduki edo gutxi eduki. Hori traba izango da zuretzat?
Bai. Aitaren garaian 80 kilo azpitik harri-jasotzaile gehiago ziren. Garai batean bi kategoria baziren, eta 80 kilo azpitik aita zen onena. Orain berriz ez dago, denak 80 kilotik gorako mutilak dira, gehienak 100 kilotik gorakoak, eta ez daukagu beste aukerarik. Nafarra, (Joxetxo Urrutia leizarrira) eta Iraitz (anaia), hiru gara bakarrik, gainontzekoak kontrario handiak dira eta horien kontra saiatu behar izaten dut.



Urtzi Telleriak Adunan 185 kiloko harria jaso zuen unearen bi irudi. Aita eta osaba ditu bere aldamenear.



ARGAZKIAK: AURRI

“Kontrario handiak dira, gehienak 100 kilotik gorako mutilak, baina horien kontra saiatu behar izaten dut

Aniak jarraitzen du?
Bai Iraitzek (18) segitzen du oraingoz behintzat eta Beñatek (13) ere bai.

Inguruen zaletasunik sentitzen al duzue?
Etxe giroan, bai, aita eta osaba. Etxetik kanpo koadri-

lan lagun batzuk badauzkat, mundu hau gustatzen zaie eta etortzen dira ikustera.

Eta merezi al du egiten duzuen ahaleginak?
Merezi, merezi, Nik berez nire zerarengatik egiten dut, gustatu egiten zait, afizioa

honetarako daukat, ez daukat kaleko umeak bezala ez pilota ez futbolerako zaletasunik. Zer ikusi, txikitatik hauxe ikusi dut eta ikasi ere bai. Hauxe gustatzen zait.

Etxean entrenatzen segituko duzue, noski?
Bai eta gimnasioa ere joaten naiz Villabonako Battis Kortajarenarengana. Txapelketa honetarako, etxean, nire kasa ibili naiz, beldurra neukalako pisua hartuko ote nuen. Baina Battisengana joateko ideia dut eta igandetan, mendira joaten saiatzen naiz, erakustaldiren bat ez baldin badaukat, mendira joaten naiz osabarekin.

Aimar Irigoien laguntzaile lanetan jarraitzen duzu?
Bai, Aimarri laguntzen beti bezalaxe segitzen dugu. Aimar eta bere lagunak ere sarri etortzen dira gurekin.

Hurrengo erronka beraz 200ekoa altxatzu gero, Harri Handien Txapelketa...
Beno, lehenengo erronka ekainaren 13an Gipuzkoako txapelketa izango da; uztailean Txintxarri saria Alegin, baiezkoa emanda daukat baina ez dakit data; uztailean 24an Bizkaian erreka harri batekin arituko naiz; Donostiako Aste Nagusian Igeldoko Harria sariketan aterako naiz, eta aurtengo urtea ixteko, Euskal Herriko Harri Handien Txapelketan ateratzeko ilusioa behintzat badaukat, 200ekoa eta 150eko kubikoa etxean jasoz gero. Besteak jasota daukat. •

Iñigo Peña Musikalaria

“Solasaldia kolore ezberdineko diskoa da”

■ Iñigo Peña lasarteoriatarak disko berri bat kaleratu du Juanan Aizpurua eta Josu Ayarzaguenarekin batera ■ Unhe-Trio da taldearen izena, Unhe taldetik eratorritakoa

Iñigo Peña, Juanan Aizpurua eta Josu Ayarzaguenak disko berria proposatzen digute, *Solasaldia*. Musikkari koloretsua eta oso era interesgarrian aurkeztua erabilitako instrumentuei esker. Iñigo lasarteoriatarra da eta konposizio lanetaz arduratzen da: bere barneko sentimenduak musikaren bidez erakusten eta transmititzen dizkigu.

ITXASO MORENO

Urte asko daramatza Iñigok musika munduan, 12 urte jada Unhe proiektua martxan jarri zenetik, eta Unhe-Trioarekin hiru. Gu berarekin bildu gara bere azken lanari buruz aritzeko.

Zer aurkituko dugu Solasaldia diskoan?

Musika nahiko berezia, gainera instrumentazio aldetik, gauza berritzaileak. Taldeak nahiko konposaketa berezia du; tronpeta, bibratona eta pianoa. Talde originala da gurea. Gainera, disko honetan kanta berriez gain, beste disko batzuetakoak ere ekarri ditugu, baina hiru instrumentu hauetara moldatuta.

Tronpeta eta pianoa ezagunak dira, baina bibratona...

Bai egia esanez hemen ez da oso ohikoa instrumentua. Xilofonoaren antzekoa da, baina handiagoa. Marinba egurrezkoa da eta bibratona aldiz, metalezkoa. Soinu berezia dauka. Disko honetan berrikuntza handiena izango litzake, baina tronpeta ere lehendabiziko aldiz *Solasaldia* diskoan erabili dugu. Korneta ere berria izan da gure konposaketetan, beste soinu ezberdin bat gehituz. Instrumentu talde multzo berezia eta berritzailea da erabat.

Jazza nagusi?

Ez zait estilo batean identifikatzea gustatzen. Topikoa badirudi ere, ez zait etiketarik

jartzea gustatzen, musika sailkatzea oso zaila da. Erritmoan, armonian... giroa dauka, baina kantak ez dira jazzekoak propioak. Laugarren kanta adibidez, *Sentikor*, joera berri baten barruan sartu behar da. Orokorrean jazz da, bai, baina ez dio estilo tradizional bati jarraitzen.

Konpositore lana zurea, nola bihurtzen da ideia bat abesti?

Era ezberdinak daude lanekitarako. Gertaerak, momentuak daude inspirazioa ematen dizutena. Batzuetan pianoan eseri eta ideia etortzen zait. Bestetan ideia bat bururat, eta gero lantzen dut. Normalean, hasieran ideia bat duzu, eta ondoren pianoarekin, armoniarekin.. garatzen joaten zara. Ondoren entzuten dugun gaian bihurtuz. Eta askotan bururatutako ideiak azkenean baztertu egin behar dituzu, hasierako ideiak ez dira beti onak izaten.

Orotara 9 abesti Solasaldian, asko geratu ziren kanpoan?

5-6 kanta geratu dira diskotik kanpo, baina kontzertuetan joko ditugu, eta beste diskoen bat ateratzen badugu, agian hor sartu daitezke.

Zer transmititu nahi duzue?

Kanta bakoitzarekin gauza bat. Hala ere, musika instrumentalak entzule bakoitzari, sentiarazten duen moduan entzuteko aukera ematen dio.

Ezkerrean Unhe-Trioren lehenengo diskoa, Solasaldia. Eskuinean, Iñigo Peña musikari lasarteoriatarra.

Nik berez, konposatzerakoan sentitzen dudana transmititzea dut helburu. Adibidez Gaia Libertad-en, Kubako biztanleen bizi era erreportaje batean ikusi eta hori adierazi nahi nuen. Nik zerbait transmititzen saiatzen naiz, baina gero bakoitzak bere buruan, bihotzean edo ariman duenaren arabera sentituko du.

Adiera ezberdineko musika

Pintura abstraktuaren antzera, kolore ezberdinak daude eta bakoitzak zerbait sentitzeko aukera ematen du.

Abesti espezialena?

Topikoa badirudi ere, guztiak. Abesti bakoitzak bere momentua dauka, espezializazio berezia. Ez dago berezirik, denak dira berezikiak.

Portada ederra diskoarena...

Johann Bertrand-ek oso lan polita egin du. Zumaia eta Lekeitio artekoa da erakusten dena portadan. Johannek diskoa entzun, eta eragindako inspirazioa irudikatu zuen. Portada diskoaren isla da, sentimenduz josia.

Non eskuratu daiteke diskoa?

Bilintxen edo Elkarren. Hipermerkatuak musika ez-komertziala ez saltzea erabaki dutelako, eta gurea ez da komertziala. Auto-produkzio lana izan da *Solasaldia*.

Eta kontzertuak noiz eta non?

Gauza bitxia gertatzen zaigu. Guk austriar managerra dugu, eta kontzertuak hemendik kanpo bilatzen dizkigu gehienbat. Hemen gauza nahiko geldi da. Dena den, pixkanaka ateratzen ari dira, baina momentuz ezin dugu ezer esan.

www.unhetrio.com
web orrialdean agertzen joango dira. •



Elisabeth
Heapaindegia

Hipodromo etorbidea 10
20160 Lasarte-Oria
Tel.:943 361597

Zure ezkontzarako behar duzun guztia:

**orrazkerak
makillajea
manikura**

....

*Eta orain...
Paris eta Italiako arropa ere saltzen dugu,
etorri ikustera!!*



LOKEko hiru gimnastek tresna zaila diren borrekin egin beharko dute lan.

LOKEko gimnastak eskolarteko finalean

Gipuzkoako eskolarteko txapelketako sailkapen faseak igaro ostean, LOKEko Garazi Gomez, Miren Aizpiri eta Aizpea Arroyo finalean lehiatuko dira bihar, Tolosako Usabal kiroldegian.

Egun osoan zehar, maila ezberdinetako gimnastak eta taldeak parte hartuko dute eskolarteko txapelkun nor den erabakitzeke.

LOKEko neskek

Pozik agertu dira LOKEko entrenatzaileak, "pozik gaude finalean hiru gimnasta sartu

ditugulako, baina zaila izango da saririk lortzea. Izan ere, maila bakoitzeko 10 onenek parte hartuko dute finalean eta gure gimnastak maila horietan lehenengo urtea dute".

Honela, Aizpea Arroyo, LOKEko kadetea, goizez lehiatuko da eta bi lan eskainiko ditu, bata borrarekin eta bestea uztaiarekin.

Garazi eta Mirenen txanda, berriz, arratsaldean izango da. Jubenilek ere, bi ikuskizun egingo dituzte eta borra eta xingolarekin egin behar dute lan. •

Lazkano eta Arluziaga zazpigarren txapelaren bila

Ostadarreko Pala txapelketako finala jokatuko dute bihar 17:30ak aldera, Huegun eta Urdanpiletaren aurka

Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen XVI. gomazko pala txapelketa amaierara iritsi da.

Martxoaren 25ean, finalurrekoak jokatu ziren. Lehenengo partidari, sei alditan txapela eskuratu duen bikoteak Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziagak Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibarren aurka jokatuz. Hasieratik erritmo handia jarri zuen Lazkano-Arluziaga bikoteak eta partida borrokatua izan zen, nahiz eta azken emaitza 30-10 izan.

Bigarrenengo finalerdian, Iñigo Huegunek eta Haritz Urdanpiletak iazko finala jokatuz bikotea, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin, 30 eta 26 garaitu zuten. Partida parekatua eta luzea izan zen hau, bikoteek partida kontrolatu zuten une oro eta azken tantoak arte ez zuten errenta hartu.



Lazkano eta Arluziagak sei alditan jantzi dute txapela, ea bihar zer gertatzen den.

Lehia handiko finala

Era honetara, bihar final handia jokatuko da, 17:30ak aldera, Michelingo pilotalekuan. Finala hasi baino lehen, urte askotan antolatzailer lanetan ibili zen Xabier Bardajiren omenez minutuko isilunea egingo da.

Lazkano eta Arluziagak bere zazpigarren txapelaren bila aterako dira eta Huegun

eta Urdanpileta bikotea izango dute aurrez aurre. Lehia handiko partida izango da, izan ere, bikote txapelkuntza iazko irabazleak garaitu zituzten sailkapen fasean.

Aurretik, 16:30ean, hiru garren postua eskuratzeko lehia egingo da Lizaso-Alzibar eta Odriozola-Martin bikoteen artean. •

Kiroltako agenda

FUTBOLA

Larunbata 08

10:30ean, Ostadar-Leintz Eskola (Partehartze infantilak, kopa) Michelinen.

11:15ean, Behobia-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Artia, Irunen.

12:00etan, Ostadar-Anaitasuna (Emakumezkoen KDT F-11, kopa) Michelinen.

15:30ean, Ostadar-Lazkao (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

15:30ean, Tolosa-Ostadar (Erregional Gorena) Usabal, Tolosan.

17:00etan, Ostadar-Touring (I. Kadetea, igoera fasea) Michelinen.

17:00etan, Idiazabal-Ostadar (I. Jubenila, kopa) Ariskorreta, Idiazabal.

Igandea 09

10:00etan, Ostadar-Zarautz (Alebinak, txapelkuntza fasea) Michelinen.

11:15ean, Ostadar-Kostkas M.B. (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.

17:00etan, Vasaconia-Ostadar (Infantil txikiak, txapelkuntza fasea) Puio, Donostian.

17:30ean, Urki-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Unbe inf., Eibarren.

FUTBOLA 7

Igandea 09

10:30ean, Xpressionk!!!-Spartak de Obelix (III. maila) Urnietan.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 08

16:00etan, Conepto Createch-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Olaizaga kiroldegia, Elgoibarren.

17:45ean, JSU Leihoak-Denak Gazte Taberna (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA-ALDATZEKO

Finalurrekoak, kiroldegian

Larunbata 08

9:30ean, ISU Leihoak-Izarra

10:30ean, Izkia-Ainhua.

Kontsolazioa, Michelinen

15:00etan, Siglo XX-Obelix

16:00etan, Goiz Argi-Okela

Ligaxka, kiroldegian

Igandea 09

10:00etan, Morrison-Viña del Mar

11:00etan, IOB H.K.-Naiban

SASKIBALOA

Larunbata 08

16:00etan, Aloña Mendi-Jalai (Gizonezkoen seniorra, igoera fasea) Zubiakoa kiroldegia, Oráin.

JUDO

Larunbata 08

12:00etan, LOKEko Iñaki Elizalde

Ama Guadalupeko taldearekin lehiatuko da junior mailako Nazional Ligako 3. jardunaldian, Madrilen. **17:30ean**, LOKEko Beñat Elizalde Judo San Sebastian taldearekin lehiatuko da senior mailako Nazional Ligako 3. jardunaldian, Madrilen.

IGANDEA 09

Goiza osoa, LOKEko infantil eta alebin mailako judoek Gipuzkoako Sanbo lehiaketan parte hartuko dute, Donostian.

GIMNASTIKA ERITMIKOA

Larunbata 08

Egun osoa, LOKEko Garazi Gomez, Miren Aizpiri eta Aizpea Arroyo Gipuzkoako eskolarteko txapelketako finalean lehiatuko dira, Usabal kiroldegian, Tolosan.

ATLETISMOA

Igandea 09

10:30ean, Landaberriko gazte-txoe alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldian parte hartuko dute, Eibarren.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 08

10:00etan, Bazpiko txirrindulartza eskolako jubenilek XXXIV Lazkao mendiko proban parte hartuko dute, Lazkaon.

16:00etan, Bazpiko txirrindul-

artza eskolako gazte txoeek Gipuzkoako Taldekako erlojupeko txapelketan parte hartuko dute, Bergaran.

Igandea 09

8:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak Urrestillara irteera egingo du.

16:00etan, Bazpiko txirrindulartza eskolako jubenilek LIV. Legorreta proban parte hartuko dute, Legorretan.

PALA

GOMAZKO PILOTA XVI. TXAPELKETA

Michelingo pilotalekuan, finala

Larunbata 08

16:30ean, Iñaki Lizaso eta Joxerra Alzibar eta Bernaitz Odriozola eta Santi Martin.

17:30ean, Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga-Iñigo Huegun eta Haritz Urdanpileta

PILOTA

Larunbata 08

16:00etan, Oiarpe3-Intza1 (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Andoaingo ikastola, Andoain.

16:00etan, Oiarpe2-Intza2 (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Herrera, Donostian.

16:00etan, Intza1-Zestoa (Eskuz binaka, infantilak) Zestoa.

16:00etan, Intza2-Gazteleku (Eskuz binaka, infantilak) Urnietan.

16:30etan, Igeldo-Intza (Eskuz binaka, seniorra) Igeldo.

Igandea 09

17:00etan, Astigarraga-Lasarte-Oria (Herriarteko txapelketa), Astigarragan.

SQUASH

18:00etatik aurrera, kiroldegian Ostirala 07

Kinin Calvo-Agustin Erkizia Xabi Amiano-Alberto Pagola

Astlehena 10

Iker Cañedo-Raul Mateos

Asteartea 11

Joaquin Peña-Javier Serrano Fernando Montero-Aitor Artola

Asteazkena 12

Emilio Hernandez-J. R. Urruzola Oswal Cañedo-Iñaki Garcia

Osteguna 13

Mikel Zugasti-Kinin Calvo Patxi Delgado-Xabi Amiano

BOLA-JOKOA

Igandea 09

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak Gipuzkoako kopako hirugarren proban parte hartuko du, Altzan.

Egunero

Erakusketa

JUAN MARI CEREZOREN omenez erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgi kafeantzokian, egun osoan.



Erakusketa

LASARTE-ORIAKO BIZILAGUNEN ELKARTEKO margo eskolako lanak ikusgai hilaen 7tik 16ra bitartean. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.


Larunbata, 8

Ekitaldia

JUAN MARI CEREZOREN OMENEZKO II. EKITALDIA. Goizetik hasita hainbat ekitaldi egingo dira; bazkaria, triki-poteoa, sagardo dastatzea, magia saioa, kontzertua... Andatza plaza, egun osoan.

Kontzertua

SUTARGI ABESBATZAREN emanaldia. Biyak Bat Jubilatuen Elkarte, 19:00etan.



Rock emanaldia kulturetxeko kafetegian

IBON CASASEK rock emanaldia eskainiko du Gazte Kontzertuen egitasmoaren barruan. "La pasta por delante" diska ia bukatua du Ibonek, Rafael Bajo musikaria eta beste hainbat kolaborazioei esker. Eskainiko duen kontzertuan, diskaren aurrerapen bat egingo du.

MAIATZAREN 7AN, OSTIRALA
KULTURETXEKO KAFETEGIAN
20:00ETAN

Berto-saioa

LEKUONA HOTELA bertso-saio berezia. Kulturetxea Hotela bihurtuko da eta bertsolariekin batera herriko hainbat talde hartuko dute parte. Oraingoan bertsoak dantzarekin uztartuko dira. Sarrera 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan, EUSKARAZ

Astelehena, 10

Hitzaldia

TOLERANTZIAREN IKUSPUNTU OROKORRARI buruz arituko da Xabier Ibarzabal, medikuntzan dokorea eta bioetikaren aditua, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

Asteartea, 11

Kontzertua

KONTZERTU PEDAGOGIKOA Donato Goyeneche eta Xabier Arakamaren eskutik. Kulturetxean, 18:00etan.



Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA IDEOLOGI POLITIKOEI buruz arituko da Martin Auzmendi, zuzenbidearen lizentziatua, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

Asteazkena, 12

Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA INMIGRAZIOARI buruz arituko da Agustin Unzurrunzaga, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren ordezkaria, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

Osteguna, 13

Berto-saioa

AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZARI buruzko jaialdia. Kulturetxean, 17:15ean.

Osteguna, 13

Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA ERLIJOARI buruz arituko da Tomas

Muro, teologoa eta irakaslea, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

Zinea

SOUL KITCHEN filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 14

Kontzertua

IBAI TALDEAREN emanaldia. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Ostirala, 21

Kontzertua

LOUISE MICHEL-en emanaldia Udalak eta Xpression taldeak duten hitzarmenaren barruan. Indie, fusion musika estiloak jorratzen ditu. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Ostirala, 28

Kontzertua

ARIMAZ KAMERA ORKESTRAREN emanaldia Danok Kide elkarrekin antolatutako V. Musika Topaketen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Jam sesioa

J. 345 TALDEA izango da gonbidatua Jam Sesioan, Talde donostiarrak jazz, swing eta funk jorratzen du. Jalgi kafeantzokian, 23:00etan.

Igandea, 30

Dantza

XXII. DANTZARI TXIKI EGUNA ospatuko da. Herriko kaleetan zehar, egun osoan.

Oharrak

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkarteak ekainaren lehenengo astean, ekainaren 2tik 6ra antolatuko ditu Zabaletako festak. Hauek antolatzeko asteartero, 19:30ean, Antonio Blas plazan bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarteak.

Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean

entrenatzen dute Michelinen. Errugby eskolako antolatzailerak Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

Usurbilgo Lanbide Eskolaren ate irekiak

Maiatzaren 15 eta 22an Usurbilgo Lanbide Eskolak goizeko 11.00tan ate irekien jardunaldia ospatuko du. Informazio gehiago: 943 364600 edo www.lhusurbil.com web atarian.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, Festina markako eskumuturreko erlojua,

Alcatel markako mugikorra, belarrirako beltza eta doratua, bi betaurreko graduatu, erloju digitala eta urrezko aliantza, Jose Luis grabazioarekin.

Hauen jabeak direla egiztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Herri Urratsera autobusa
Ikastolen elkarteak antolatzen duen Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak urtero bezala. Autobusa goizeko 09:00etan abiatuko da lehengo taxi geltokitik maiatzaren 9an. Txartelak 12 euro balio du eta Ttakunen eta Jalgin daude salgai.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Festa Juan Mari Cerezoren omenez

■ Istripuz hil zen gitarra-jolea gogoratuko dute larunbatean Andatzan ■ 40 de Fiebre eta herriko beste hamar talde kontzertuan ■ Multimuskala elkartearen laguntza eskertu dute

Juan Mari Cerezo, 40 de Fiebre-ko gitarra-jolea, gogoratu eta omenduz herriko hamar rock taldek joko dute larunbat gauean Andatza plazan. Duela zazpi urte auto istripuz hil zen gaztearen taldekideak ere berriz elkartu dira eta garai hartan atera zuten maketako sei abestiak prestatu dituzte larunbateko kontzertuan jotzeko. Cerezoren omenaldia egun guztiko festa izango da eta gaueko kontzertua Lasarte-Oriako musika mailaren eta zaletasunaren isla.

JON ALTUNA

40 de Fiebre rock taldeko Juan Mari Cerezoren omenez egingo den kontzertuan parte hartuko du herriko talde honek. 2003ko maiatzaren 12an Rekaldeko bidegurutzean auto istripuz hil zen gaztearen tokian Jabi Mora jarri eta 2000.ean argitaratu zuten maketako abestiak prestatu dituzte taldekideek biharko kontzerturako. Bittor eta Rafak musika alde batera utzita dute eta Unaik Dictadura taldean jotzen du. Hain juxtu talde hau da kontzertuan kanpoko talde bakarra. Beste guztiak Lasarte-Oriakoak dira, Bondi22, Zona Mortuoria, Despervicio, Obito, Gaueko Itzalak, Keep Digging, Lili&The Tomboys (batzuk Oztopen aritutakoak) eta baita Manu DJa ere. Gazteek izan ezik, gehienek ezagutzen zuten Juan Mari gainera.

Baina Juan Mari Cerezoren omenezko II ekitaldian (lehenengo 2004an heriotzaren urteurrenean burutu zen Okendon) dena ez da kontzertua izango, bere lagunek larunbatean egun osoko festa prestatu baitute. Omenaldiaren egitaraua gaur hastekoa zen Oreindik taldeak Jalgi tabernan eskaini behar zuen kontzertuarekin, baina bertan behera gelditu da. Hori bai, Jalgi tabernan, Juan Mari Cerezo eta 40 de Fiebre taldearen argazkien erakusketak zabalik dago hilabete honetan.

Musika izango da egun guztian protagonista bihar Andatzan: goizeko 11etatik 13etara Kaleko Musika Eskolaren saioa izango da eta ondoren herrian kalejira pote batzuk hartuaz; bazkaltzeko sagardo dastaketa eta pikoteo herrikoia eskainiko dira 6 euroren truke (txartelak Obelix, Ilargi eta Sustrai tabernetan hartu daitezke); ondoren irekiko da Jam saioa, mikroa zain egongo da hartu nahi duenarentzat; 18:00etan hasiko da Rafala magoaren ikuskizuna

eta 20:00etan kontzertuak. Hamar talde dira eta goizaldeko 03:00ak arte luzatuko da. 40 de Fiebre gutxi gorabehera ordubatean joko du. Kontzerturako taldeak elkartzeko arazorik ez da izan, omenaldiaren zurrumurrua zabaldu zenetik guztiak jo nahi zuten eta.

Rafa Lopez eta Juan Mari Cerezok sortu zuten 40 de Fiebre taldea aurreko mende amaieran. Rafa berak eta Jabi Morak, azaldu digute zer dela eta antolatu duten omenaldifesta: "Lagunartetik sortu zen ideia, hitz-eginez, eta bestalde herriko taldeek ere gogoaz zuten Juan Mari omendu eta herrian jotzeko".

Duela sei urte egin zen lehenengo omenaldia Okendon. Rafa Lopez-ek azaldu digunez, "orduaren pentsatu genuen, ez urtero, baina bai tarteka, zerbait egitea, bere figura ahaztu ez zedin, Juan Mari herriko rock munduan oso ezaguna zen. Beraz, ideia horixe izan da, Okendokoa errepikatzea baina Andatzan".

Helburu bikoitza

Beraz bi helburu lotu dira, batetik Juan Mari gogoratu eta omentzea eta bestetik herriko taldeei kontzertua eskaintzeko aukera eta bultzadaxo bat ematea. "Juan Mari herriko punk-rockaren ikur bat da, talde batean jotzen zuten, beste taldeek ezagutzen zuten eta guztiakin zuten hartu-eman. Beraz, omenaldia ezin zitekeen bestela egin, musika mota hau eskaini eta kontzertu bat egiteko baliatu" esan digute antolatzen ibili den taldeko bi partaide hauek.

Rafak azaldu digunez, 40 de Fiebreko kideak kontzertu honetarako elkartu dira soilik, ez dute berriz jotzen hasteko asmorik: "Detaila bat izan nahi genuen guk ere. Gainera gitarra jotzen, bizikletan ibiltzen bezala, ez da ahazten". Dudarik gabe gustuko zaletasuna du, Oztopo taldean baxua jo zuten gerora, baina aspaldian utzita



40 de Fiebre taldeko Rafa, Bittor eta Juan Mari. Hau istripuz hil zen 2003an eta gogoratzeko festa handia antolatu dute.

“*Bi helburu lotu dira: batetik Juan Mari omentzea eta bestetik herriko rock taldeei jotzeko aukera ematea*”

dauka. Bere iritiz, daukan bizi-moduarengatik ezin du konpromisorik hartu. "Egunen batean nonbaiten geratzen eta finkatzen banaiz, ez orduko amorruekin, baina hasiko naiz berriro... Askok gustatzen zait". Pozik gogoratzen ditu Rafak 40 de Fiebre eta Oztopo taldearen garaiak. Talde honekin Euskadi Gaztean finalista izan zirene eta bideo klipa ere grabatu zuten, baina taldekideak kanpoan dira, bat Londonera joan zen bizitzera, beste bat Indiara eta utzi egin zuten.

Pertsona ezaguna

Juan Mari, batez ere, gazterik hil zen mutil alaia zela nabarmendu dute bere lagun Rafa eta Morak. Rafa Lopez taldekideak ondo gogoratzen du egun beltz hura. "24 urterekin hil zen, Hernanirantz lanera zihola astelehen batean. Gogoan daukat Lemoan jo genuela larunbatean". Herriko musikazaleen artean oso ezaguna zen, "denekin ondo konpontzen zen, Juan Marirekin haserretzetza zaila zen".

Herriko taldeen artean gehiena jotzen zutenak ziren 40 de Fiebrekoak. Rafak dioenez, "hasiera indartsua izan genuen, garai hartan ia astebururo jotzen genuen nonbaiten".

Rafa eta Juan Mari sortu



2004ko omenaldiko irudia.

zuten taldea, Bittor abeslaria Rafak ezagutu zuen euskaltegian, eta Unai karanbola bidez heldu zen. "Lagun baten amak bere ama ezagutzen zuten,... behin etorri eta gurekin geratu zen". Hiruzpatalau urte iraun zuen taldeak, 2003an Juan Mari hil zenean utzi zuten arte. Abestiak berak egiten zituen, berak deitzen zituen entseguetarako, "gurdiari berak egiten zion tira".

Taldea ezagutzen ez dutenek aukera dute larunbatean ikusteko eta 2000 urtean atera zuten CDko abestiak entzuteko. Rafaren ustez, bera ezagutu zutenak joango dira Andatzara, eta gazteagoak ere

bai, jakin-minarengatik. "Taldea pila bat dira, festa handia izango da, normalean ez da horrelakorik Lasarte-Orian, beraz,... ez dago aitzakiarik".

Erakusketak Jalgin

Jalgi tabernan hainbat kontzertutako argazkiak zintzilikatu dituzte; Rafa taldekideak asko ditu gogoan, esate baterako, lehen kontzertua Andoaino gaztetxean, Antiguon Potrotainoren ikusketan emandakoa, Ordiziako festatokia edota Bartzelonan Splugues de Llobregaten etxebizitza-espekulazioaren aurka eskaintakoa. Talde ezagunekin ere jo zuten, Etsaiak taldearekin esaterako.

Multimuskala antolatzen duen taldearen laguntza izan dute Cerezoren lagunek eta honen auzoko, Sasoea inguruko taberna ere bai. Juan Mari ezagutu egiten zuten eta harreara oso ona izan dute. Udalak, aldiz, ez du sosik eman eta beraz antolatzaileek asko eskertu dute taberna eta multimuskalaren laguntza hori, bestela ezin izango zuten, ez kontzertu ez egun guztiko egitaraurik, antolatu eta.

Bestalde, Juan Mariren omenez herriko 28 talderen abestiz osatutako CDa salgai dago 3 eurotan tabernetan, "top manta prezioan". Multimuskalaren kontzerturako egindako kopia guztiak saldu ziren eta orain bigarren sorta bat egin dute beste ehun alerekin. Bestalde, www.myspace.com/lasarteoriak musika webean ikusi daitezke herriko taldeak. •